

# Arrasate

P R E S S

1997ko  
Urriak 10  
379. zenb.



## Deba Garairako Ospital berria

**30 GALDERATAN:** EIDER OTXOA • **IKUSPEGIA:** JOSE MARI ASTIGARRAGA  
**KIROLAK:** ZALDIBAR FUTBITO TXAPELKETA • **IRITZIA:** ANUSKA EZKURRA




# VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ▪ Tel.: 79 78 10 ▪ ARRASATE  
Ibargarai, 24 ▪ Tel.: 76 12 21 ▪ BERGARA  
Rioja, 17 ▪ Tel.: (945) 25 88 92 ▪ GASTEIZ

*Zure ongizatea  
babesteko gaude*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**



SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.

# MAPFRE

MAPFREK DISEINU  
ESKLUSIBOKO  
ZIKLISTA EKIPOA  
OPARITZEN DIZU

## DOAN

Zure autoaren aseguru  
hauetako edozein poliza  
kontratatzearren



Maillota  
*Trebol*  
poliza

Maillota  
*10 s*  
poliza

Maillota  
*Lider*  
poliza

Maillota  
*Todo Riesgo*  
poliza

Maillota  
eta Koulottea  
*Todo Riesgo 100*  
poliza

1997ko  
urriaren 31ra  
arte du balioa  
eskaintza honek

Asegura ezazu zure autoa

# MAPFRE n

Garibai Etorb., 16 ARRASATE  
Tel.: 79 89 00 / 79 67 22



# Udalatx eta Arrasate

**A**skotan egin dut amets zurekin, Udalatx! Arrasate neketsu egiten zaidanean, mendi-uso nahi nuke izan zure gailurra -gezi zorrotz, zeru bide, arnas garbi- gaintzeko, nere hanka baldar hauek ez baidirate lagun-zen, nekez eta iserdiz bada ere, zuregana heltzen.

Arrasate goia zara zu, eta Arrasate behean ni bizi! Arrasate garbia zara zu, eta Arrasate kutsatua arnastu nik. Bizipoza, bakea, itxaropena... dariozu, baina zure dohaiaik eta edertasunak ezin nik dastatu!



Jose Mari Astigarraga

**“Askotan egin dut amets zurekin, Udalatx! Arrasate neketsu egiten zaidanean”**

Utz ditzagun ametsak eta gatozen herrira eta herritarrengana. Hegaztun bizkor ikusi nahi nituzke nire herrikideak, gizatasunaren eta edertasunaren gailurrera igotzeko gai, askeak, kantari. Horrela ote?

Joko bat proposatzen dizuet. Aurki ezazu zein hegaztun mota zaren zu:

1. Gardantxilo edo kanari -elegantea eta aberatsa- baina kaiolan?
2. Txepetxa, beti txorrotxioka eta saltoka, baina sasitik irten barik?
3. Kale-txoarra, hormatxori jale eta kantari

txar?

4. Buztanikara, geldiezina baina mehe eta huts?
5. Putre haratustela, karroñeroa, aidean eta urruti eder, baina lurrean higuingarri?
6. Arranoa, indartsu baina harrapakari?
7. Kale-uso, dekoratzaile baina kaltegarri nahiz eta txurria?
8. Mika-beltz, lapurra?
9. Kuku iragarlari, baina kabi lapurra eta txita hiltzaile?
10. Enara, zozo-beltz mokogorri, birigarro, txantxangorri, usakume...?

Ni ametsetan, mendi-uso sentitzen naiz Udalatx puntan, zerua goian Arrasate behean.



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar- do Kortabarría. **Kazetariak:** Iñxaro Zubillaga, Marian Porcel, Pabli Montero. **Publikatzailea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo. (Tel.: 77 03 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 25) **Disainua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Elxerri, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñxaro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenegoa, Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Saila, ASA Taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiarán, Xabier Letona, Karmele Pérez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Joseon Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Ordainua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimatzaia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kulturaren laguntza

## 379. zenbaki honetan

1997ko urriaren 10ean

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	11/12	Kulturaren txokoa .....	26
Inkesta.....	7	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza .....	30/31
Euren ikuspuntutik .....	8	Asteko gaia .....	17/19	Ikusi eta entzun .....	33
Astearen errepasoa ...	11	Kirolak jokoan .....	20/23	Fotozaharra .....	34

### Ikuspegia

Jose Mari Astigarraga.....3

### Iritzia

Anuska Ezkurra .....

Kulturaren txokoa

Udazkeneko kultur eskaintza .....

30 galderetan

Eider Otxoa .....

Aurrez aurre

Teresa Altuna.....

Asteko gaia

Ospital berria Deba Garairako...15/22

Ospital berria eta modernoa izango du Deba Garaiaik urte bukaerarako. Arrasaten zabalduko den ospitalaren inguruan gehiago jakiteko Jose Luis Angulo gerentearekin izan gara.





# 10 ostirala

■ ZINEA

*Airbag.* Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ ANDALUZAR  
UDAZKENEKO JAIALDIA  
ESKORIATZAN

12.30etan meza rocieroa Eskoriatzako parrokian. 1.30etan txalaparta eta *Sueños de Andalucía* taldearen emanaldia Plazan. 5.30etan *Gorosarri euskal dantza* taldea. 6etan *Alegria de la sierra* taldearen emanaldia. 6.30etan Eskoriatzako musika eskola eta 7etan *Al Andalus rociero* abesbatza. Egun osoan zehar Eskoriatzako plazan Al Andalus kultur elkar-tearen stand-a egongo da andaluziar jakiak dastatzeko.

■ V. KIROL TOPAKETAK  
OÑATIN

Kirolaren babesa gaiaren inguruan topaketak Oñatiko Santa Ana antzokian. Goizeko 9etatik arratsaldeko 7ak arte hitzaldiak, mahainguruak eta tailer praktikoak izango dira.

# 11 larunbata

■ ZINEA

*Jovenes Aventureros.* Alai zinema 5etan. *Breakdown* 7.30etan eta 10etan.

■ ARRASATEKO EUSKO  
ALKARTASUNAREN XI.  
URTEURRENA

Eguerdiko 12etan meza San Frantzisko elizan. 2.30etan bazkaria Alkartetxean.

■ PAILAZOAK AMAIA  
ANTZOKIAN

Txoronpio, Pantxi eta Pantxo pailazoek *pepinu berdea* antzezlana eskainiko dute Amaia antzokian arratsaldeko 5etan. Sarrera: 300 pta.

# 12 igandea

■ ZINEA

*Jovenes Aventureros.* Alai zinema 5etan. *Breakdown* 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTAK

Ibilbidea: Arrasate, Oñati, Araotz eta Arrasate. 48 kilometro. Irteera goizeko 9.30etan Monterrondik.

■ UDALATX EGUNA

Goizeko 11etan gailurrean meza. Aurten gogoan hildako mendizale guztiak izango dira, baina bereziki Heriberto Mendizabal.

# 14 asteartea

■ ZINEA

*Breakdown.* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

# 16 osteguna

■ ZINE KLUBA

*Georgia.* Zuzendaria: Ulu Grosbard. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Prezioa 400 pta. eta Gazte Txartelarekin 350 pta.

# 13 astelehena

■ ZINEA

*Breakdown.* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ KERAMIKA  
IKASTAROAREN HASIERA

Arratsaldeko 7etan hasiko da Keramikako lokalean. Klaseak ostegunetan ere emango dira.

**BASABE  
JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 79 91 84  
ARETXABAETA

**Lore**  
Lurrindegia  
Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 79 52 50

**TOKION**  
ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN SALMENTA  
Erdiko Kale, 7  
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

**HIES  
EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
5etatik 8etara.  
Tel.: 79 26 99



■ **AUTOESTIMA IKASTAROA**

Urriaren 28tik abenduaren 16a arte. Asteartetan arratsaldeko 4.45etatik 6.45ak arte. Emakumeei zuzenduta. Izenematea Emakume Sailean (79 41 39)

■ **ERAKUSKETA HARRESI ARETOAN**

Urriaren 17tik 31ra "Mugarik gabeko gazteak" gaiari buruzko argazki erakusketa Harresi aretoan. Ordutegia: arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Larunbata eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta arratsaldeko 6etatik 8ak arte.

■ **FAMILI ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTROAREN OHARRA**

Famili eta gizarte hezkuntzarako zentroko arduradunek ikasleentzat Parisera bidaia antolatu dute urriaren 24, 25 eta 26rako. Interesatuok lokalera zuzendu edo 79 04 59 zenbakira deitu. Lehenbat lehen izena ematea komeni da.

■ **CORREOS-en OPOSAKETETARAKO IKASTAROA**

Deba Garaiko langile komisioak eta Correosko sekzio sindikalak oposaketak prestatzeko ikastaroa antolatu dute. Klaseak urriaren 27tik aurrera asteen hiru bider emango dira: astelehentetan,

asteartetan eta asteazkenetan arratsaldeko 4etatik 6ak arte. interesatuok deitu 79 52 60 zenbakira edo lokalera zuzendu.

■ **KARIBEKO DANTZEN IKASTAROA**

Urriaren 20tik azaroaren 19ra arte astelehentetan eta asteazkenetan.

Ordutegia: arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara Musakolako Saloian. Prezioa: 4.000 pta. Ikasle eta langabetuendako 2.500 pta.

■ **GIMNASIA TERAPEUTIKAKO IKASTAROA**

Arrasateko yoga


elkartean emango da ikastaroa asteartetan eta ostegunetan arratsaldeko 7etatik 8.30ak arte. Bertan masaia, automasaia, erlajazio erak, arnasketak eta yoga era desberdinak ikasiko dira besteak beste. Interesatuok 77 01 33 zenbakira deitu dezakete edo Jose Luis Iñarra kalean Yoga Elkarteak duen lokalera zuzendu.

■ **NORBERA ZAINTEKO IKASTAROA ARAOTZEN**

Urriaren 18an eta 19an norbera zaintzeko ikastaroa emango da Araotzko Elorto atsedeen-etxean. Kostua pentsio osoarekin 17.000 pta. Interesatuok deitu 71 64 99 edo 77 01 33 zenbakietara. Asteburuko ikastaroa izango da.

■ **BASERRIKO OILASKOEN EKOIZPENARI BURUZKO IKASTAROA**

Arrasateko Udalaren enplegu zerbitzuak antolatu du ikastaroa eta batez ere nekazal eremuan produkzio unitate batek behar dituen lurrak erabilgarri eduki ditzakeen langabetuei dago zuzenduta. 200 orduko ikastaro praktikoa izango da, hiru hilabetetan banatuta. Izenematea urriaren 15a baino lehen egin behar da Udaletxeko Enplegu Zerbitzuan. Ikastaroa azaroan hasiko da.



■ **GOLF IKASTAROA ARRASATEN ETA URTURIN**

14 urtetik gorakoendako. Urriaren 18an, 25an eta azaroaren 8an Arrasaten. Azaroaren 15ean eta 16an Urturiko Golf zelaian. Arrasateko ikastaroaren ordutegia arratsaldeko 3etatik 6.30ak arte. Urturin, zapatuan, goizez eta arratsaldeko Domekan 10etatik 2ak arte. Prezioa 10.000 pta. bazkideentzat eta 12.500 pta, ez direnentzat. Izenematea Musakolako kiroldegian (77 16 77).

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**  
Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 79 08 07

**beatriz**  
oinetakoak  
eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE

  
**HAURTOKO**  
Arrasate Pasealekua 4,  
Tel.: 79 14 90  
ARRASATE

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**  
Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 79 15 65



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala 10**  
 • Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.  
 • Gauez: Camacho. Bergara.
- Larunbata 11**  
 • Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.  
 • Gauez: Puy. Bergara.
- Igandea 12**  
 • Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.  
 • Gauez: Puy. Bergara.
- Astelehena 13**  
 • Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola.  
 • Gauez: Guallar. Bergara.
- Astearte 14**  
 • Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin.  
 • Gauez: Estella. Bergara.
- Asteazkena 15**  
 • Gaueko 10ak arte: Amezuza. Santamaina.  
 • Gauez: Mozos. Bergara.
- Osteguna 16**  
 • Eguez eta gauez: Ruiz. Maala.

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

- Eritoxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00  
 Igualarioria . . . 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) . . . 79 39 00  
 (emakumeak) . . . 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
 Bergara . . . 76 55 76
- DYA**  
 Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria . . . 77 03 46  
 • Espezialitateak . . . 77 05 78  
 • 77 12 64  
 Oñati . . . 78 08 52  
 Eskoriatza . . . 79 98 58  
 Aretxabaleta . . . 79 74 58  
 Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantziak . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
 Oñati . . . 78 04 11  
 Bergara . . . 76 14 69  
 Arrasate . . . 79 14 39  
 Aretxabaleta . . . 79 10 52  
 Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**  
 Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
 Udal taldea . . . 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua . 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . 088
- Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62  
 Gasa . . . 900 40 05 23  
 . . . 79 78 44  
 . . . 79 76 78
- Garraioak**  
 Taxiak . . . 79 12 22  
 PESA . . . 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza . . . 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**  
 KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterongo liburutegia**  
 Monteron . . . 77 01 05
- Irratia**  
 Arrasate Irratia . . . 79 58 77

**KILOMETROTAKO AUTOBUSEN INGURUAN**

Joan den igandean Kilo- metrooak zirela eta, AEDK antolatuta Arrasateetik 7 auto- bus irten ziren jendea Pasaia- ra hurbildu asmoz. Goizeko 9etan irten eta gidariak Kilo- metrotako antolakuntzakoek agindutako lekuan aparkatu zituzten autobusak. Haueta- ko bati kotxea portuan uztea egokitu zitzaion, autobus honetan etorritakoekin, portutik bertatik irtetzekotan gelditu zirelarik. Zortzieta- rako jendea portuan zegoen, baina autobusik ez. Ertzan- tzaren aginduz, gidariak auto- busa eraikuntza baten atze- aldera aldatu zuen eta inori abisurik eman gabe, han -esandako lekutik ikusten ez zen tokian- gelditu ziren autobusa eta gidaria jendea- ren zain.

AEDK autobus bakoit- zean arduradun bat izenda- tuta zeukan hurrengo egite- koarekin: autobus bakoitze- an zenbatuta zeuden lagunak, bueltarako autobusean zeu- dela ziurtatu. Baina autobus ezean ezin ezer egin, ardu- radunak ere ez baitzuen gida- riarengandik aldaketaren berri jaso. 6 autobus beteta bueltatu ziren etxera, 7. auto- busa berriz, 20.30etan jen- derik ikusi ezean, hutsik buel- tatu zen. ARRASATE 5 kar- tela zeraman autobus honen gidariak, ez zuen portuan, berba egindako tokian, jen- derik zegoen begiratu ere egin eta alde egin zuen. Gaz-

te asko gelditu zen Pasaian etxera bueltatzeko modurik gabe eta gurasoak joan behar izan ziren beraien bila.

AEDK, gertatutakoaren erantzule bezala, gertakizu- na larritzat jo du eta kaltetu guztiei barkamena eskatze- az gain, honen inguruan har- tutako erabaki eta neurrien berri eman nahi du:

1. Kontratutako autobus enpresari erantzunkizuna eskatuko zaio.

2. Kaltetu guztiei ordain- dutako dirua bueltatuko zaie: AEDra bertara jo mesedez, ez baitugu zuen izen zerrenda.

3. Autobus bakoitzeko arduradunak, bere kotxeko eta autobus enpresarekin harremanetan jartzeko tele- fono zenbakiak eskura izan- go ditu aurrerantzean. Gogo- ratu arduradunak kolabora- tzaileak direla eta zure lagun- tza ere eskergarria izan dai- tekeela.

4. Adin txikiko gazteei gurasoek sinatutako baimen orria eskatuko zaie.

5. AEDK autobusen anto- laketa zerbitzua eskaintzen du baina ez begirale zerbitzua, beraz adin txikiko gazteekin nagusi bat joatea gomenda- tzen da. Oraingoan ez da ezbeharrik gertatu, baina ger- ta liteke.

6. Aurrerantzean auto- busetarako txartel guztiak AEDn salduko dira, erabil- tzaileen adina ezagutu ahal izateko.

Berriz ere barkamena eskatuz eta honelakorik gehiago gertatuko ez dela- koan, AEDrengan konfi- dantza jarri duzuen guztiei eskerrak eman besterik ez zaigu gelditzen.

*AEDko zuzendaritza batzordea*


**UGARAN jatetxea**  
 Garagartza auzoa  
 Tfnoa: 79 76 58  
 ARRASATE

**Memesa**  
 79 42 22

*Sili Sili*  
 Martxa eta estilo handiko erropa  
 Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 79 81 82



# Udalatx azpitik Abiadura Handiko Trena pasatzeko tunela egitea zer erizten zaizu?



**Alex Puigdemolas**  
(21 urte)  
Lanean eta ikasten

Ez nekien. Baina berez gaizki erizten zait. Hori mendia apurtzea da.




**Naiara Undagoitia**  
(19 urte)  
Ikaslea

Ez dut ezer entzun. Orain entzunda, oso txarto erizten zait. Natura galduz joango da horrela.




**Francisca Manjón**  
(42 urte)  
Langilea

Ez neukan ezta ideiarik ere. Ezinezkoa erizten zait hori egin ahal izatea, baina herriaren onerako bada, fenomeno.



**Satur Jauregi**  
(69 urte)  
Jubilatua

Zer edo zer entzun dut, bai. Baina horri ezin zaio erantzun balorazio bat egin barik. Pentsatzen ere ez naiz jarri, baina egingo dut, inportantzia handiko kontua da eta.



**Mikel Pelaez**  
(36 urte)  
Langilea

Ideiarik ere ez daukat, ez nekien. Udalatx azpitik tunela? Hori pasada bat da.



**Iban Zubizarreta**  
(20 urte)  
Ikaslea

Ez dut ezer entzun horren inguruan. Ez dakit zer esan, ez dit kontu horrek ezer esaten.



**Txaro Arregi**  
(45 urte)  
Langilea

Entzun dut, bai. Trenagatik ondo, baina Arrasaten ez du izango geltokirik eta hori ez zait gustatzen. Onurarik ez izateko...



**Elisa Uribebarria**  
(27 urte)  
Langilea

Badakit trenarena, baina nondik pasako den ez. Ez nekien tunelarena, baina hobe tunela gainetik baino.

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

**SIRIMIRI**  
Zure gustoko arropa!  
Erdiko kale, 42  
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

**ARRASATE  
HOTELA**  
  
Biteri, 1 Tel.: 79 14 16  
ARRASATE

**IBARRA  
Garajea S.L.**  
  
Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua



USTEAK USTE

**Emozioaren tiobiboan**

**E**mozioz betetako hastea izan dut, onetik txarrera eta kontrako bidean.

Begira: hasteko, ezkondu nintzeneko 4. urteurrena, eta emazteak kontrakoa esaten badu ere, semeak gero eta garbiago esaten du "Ata". Hori eguenean.

Zapatuan infantraren ezkontza; ez nuen minutu bakar bat ere ikusi, neuk beste bat neukan eta. Mundial! bodatik bueltan sofan etzan eta, derbia.

Gehiago emozionatu izan nau beste urte batzuetan.

Domekan, periodoan irakurri nuen kutxazainen eraketena. Ez ninduen batere poztu.

Astelehenean, bezperan ondo aparkatuta utzitako kotxea kolpe galantarekin aurkitu nuen. Nota miserable bat ere ez zidan utzi auto-txokelariak, eta hori martizenean auto berria jasotzeko hura entregatu behar nuela. Ederra grazia! Egun berean, Mahai Nazionalaren aurkako epaiketamuntaia (Hurrengo batean jardungo dut luzeago honetaz).

Martizenean, 16 urte eta gero, Pako Robles etxean. Ongi etorri!

Emozio astea, ezta?

Beñardo Kortabarria



**Goikobalu Txiki: abesbatz kantaren harrobi lanean**

Anuska Ezkurra

**B**adira hiru urte Goikobalu Txikia sortu zela. Hasi-rra batetik Arrasateko haur guztiei zabalduko gaztetxoan abesbatz taldea izateko asmoarekin jaio zen. Goikobalu abesbatzaren babespean gaztetxoan ahotsak landu eta musika korralaren giroa dastatzeko aukera emanik, badira hamabost bat neskatok azken urteotan Goikobalu abesbatzaren abes-tera pasa direnak.

Goikobalu Txiki bere lehen urtetan hainbat kontzertu eman izan ditu, bai Goikobalurekin eta baita bakarka ere, orkestra desberdinekin abesteko aukera paregabea izan da

(Arrasate Musikaleko orkestra, Errusiako orkestra...)

Bestalde Joxe Maria Barandiarani egindako omenaldian parte hartu zuen eta iazko Gabonetan "Errenterriako Gabon Abestien Txapelketan" 2. saria lortu zuen.

Aurtengo kurtsoari begira hainbat proiektu ezberdin

dugu, 2. haur kantetan parte hartu, Donostian kontzertu batzuk eta baita urteroko kontzertuak Goikobalurekin.

Badirudi piskanaka-piskanaka Goikobalu Txiki haur abesbatzen artean bere bidexka jorratzen ari dela eta guzti hau bidean geratu diren neska-mutiko, Goikobalu abesbatzaren dauden neskatok eta batez ere momentu honetan Goikobalu Txiki osatzen duten neska mutikoei esker izan da. Ziur gaude aurrerantzean aurkituko ditugula gaztetxo berriak ekin diogun bidean. Zuen zain gaude.

Anuska Ezkurra, Goikobalu Txikiaren zuzendaria.

**“  
Goikobalu Txiki haur abesbatzen artean bere bidexka jorratzen ari da  
”**

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
**SOLARIUMA**  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 77 13 78

**URRATS**  
AHOLKULARITZA  
GARIBAL, 3  
Tel.: 79 87 74  
ARRASATE

**TTUKUN**  
Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioak  
Offseta  
Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 79 46 62



# TXORONPIO, PANTXI ETA PANTXO

- AMAIA ANTZOKIAN
- URRIAK 11, LARUNBATA
- ARRATSALDEKO 5ETAN
- SARRERA: 300 PTA.



PEPINU BERDE TOMATE GORRI  
TXOKOLATE ZOPA BATENGATIK



ARRASATEKO UDALA



## astea bi hitzetan

### ■ Autoinkulpazioak eta manifestazioa

HBko Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa dela eta, hainbat ekintza burutzen ari da herrian. Ostiralean 90 autoinkulpazio inguru aurkeztu ziren Bake Epaitegian, Mahai Nazionalari elkartasuna adieraziz. Astelehenean, berriz, HBk deituta, manifestazioa egin zen herriko kaleetan zehar. Antolatzaileen arabera, 500 lagunetik gora bildu zen bertan.

Bestalde, azo eguerdian LABek antolatutako kontzentrazioa egiteko asmoa zegoen plazan lehenengo eta Bake Epaitegiaren aurrean gero, eta gaur Jarraik deitutako borroka eguna.

### ■ Kutxazain automatikoen erreketa

Kutxa, Euskadiko Kutxa, Argentaria eta Santander

banketxeetako kutxazainen kontra koktelak bota zituzten Maritxu Kajoi gauean. Maisu Arano kaleko Kutxaren bi kutxazainak, Euskadiko Kutxaren Iturriozko sukurtsaleko biak, Argentariaren kutxazaina eta Santander bankuarena, horietxek molotov koktelen jaurtike ten eraginez kaltetuta suertatu zirenak. Banketxeen aurkako erasoak ostiral gauean suertatu ziren, Maritxu Kajoi gaueko 1.30ak eta 3ak artean.

### ■ Arrasatear ugari Kilometrotan

Eguraldiaren laguntzaz, milaka lagun bildu zen pasaden igandean Pasaia-Lezo inguru horretan, aurtengo Kilometroen ekitaldia bertan burutzen zen eta. Milaka lagun horien artean Arrasateko jende ugari. Euren

kontura joandakoak alde batera utziz gero, aipatzekoa da AEDk antolatutako zazpi autobus irten zirela Pasaia-Lezorantz. Bueltarako komeriak autobus batean joan zireneko, ez zen eta aurrez geratutako tokira agertu.

### ■ Aretxabaletarra hilik istripuan

Ostiral arratsaldean gertatuko auto istripu batean bizia galdu zuen 24 urteko J. P. atxabaltarrak. Istripua San Prudentzioko bidegurutzan gertatu zen, Oñatirako norabideko lehen bihurgunean. Santanderko matrikuladun Pegaso kamioi bati karga erori zitzaion eta lau auto harrapatu zituen azpian, tartean Aretxabaletako gazteak gidatzen zuen Seat Malaga autoa. Kamioiak burdinneko barrak zeramatzen.

“... gure herriko sektore sozial gehienek presoen batzearen aldeko mobilizazioen eta posizionamenduen bidez azaldu duten borondatea gehitzen badiogu, nire galdera honakoa da: uste al duzu, bi hilabete gehiago pasata eta 10 urte igaro ondoren, gizarteak bere erreibindikazioak alde batera utziko dituela?... Lehendakari jauna, zer egiteko asmoa duzu bi hilabete hauetan?”

Madrilgo gobernuak ezin du dispertsioa mantentzen zure alderdiaren laguntzarik gabe. Beraz, konplizitate moduan ulertzen dugu zure erantzuna guk guztiok; bai zuk eta baita zure alderdiak ere gure herriaren eta bere historiaren aurrean azaldu beharko duzue konplizitate hori. Etengabe jarrera aldaketak eskatzen dituen gizon batek, jakingo du bere esanahia eta gogortzen dizut oraindik bizitza gehiago salbatzeko garaiz zaudela. Zuen eskuetan dago”.

**JON BARRENA**

Euskaldunon Egunkaria  
1997-10-2



### ANDALUZIZARREN BATZARRA ARRASATEN

Autonomi Elkarteko A etxe andaluziarretako ordezkariak bildu ziren larunbatean Al-Andalusen egoitzan. 11 etxe edo elkarteetako 45 lagun etorri ziren Arrasatera. Egitasmoen artean, azpimarragarriena Gabonetaan Al-Andalusen lokalean egingo den gazteen kontzentrazioa.

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**ITSASKI  
ARRANDEGIA**

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tel.: 79 98 94

**UGARTE**

Industri  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00  
Fax: 793412

**S. CARRASCAL S.L.**

**Bertan egindako:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikaren erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a  
Tel/Faxa: 79 01 82



# AHTren aurkako Asanblada bailararen garapenaren alde, azpiegituren aurka

Arrasateko Abiadura Handiko Trenaren aurkako Asanbladak, komunikabideetan agertu izan den hainbat ideari aurre eginez idatzi bat argitaratu du. Bailararen garapenean zer ikusi handia izango duten azpiegitura proiektuak agertu direla diote AHT-ren aurkako asanbladakoek, eta proiektu horien aurka daudenak garapenaren aurkako talde moduan aurkeztu izan direla.

Asanbladakoek diotenez, eurak ere bailararen garapenaren alde daude, baina ez dute uste martxan dauden proiektuak horretarako baliogarriak direnik. AHT dute hizpide lehenengo, Eibar-Gasteiz autobidea gero.

## AHTren EZAUGARRIAK

Hiriburuen arteko komunikazioa erraztu eta bailarako baztertzeko beste ezertarako ez duela balio diote asanbla-



Udalatx azpitik bi tunel pasatuko ei dira.

dakoek, azpiegiturak berez ez dakartela garapenik. Dirukontuak ere aipatzen ditu AHTren aurkako asanbladak, esateko kostu orokorra 700.000.000.000 pezetakoa dela. Eta hor zalanza agertzen dute, hortan gastatzeak beste zerbaitetan gastatzea

eragotziko duelakoan. Eragin ekologikoa aipatzen da, eta proiektua eraman den modua salatu, "erdi-ezkutuan" diotenez. Jakingarri gisa, AHTren proiektuaren ezauzgarrietariko batzuk ematen dituzte: 443 km. Euskal Herrian, 128 km. tuneletan,

250-400 kilometro orduko abiadura, 120 metroko zabalera segurtasun neurriengatik, eta hornidura energia nuklearraren bidez.

## EIBAR-GASTEIZ AUTOPISTA

Trenaren proiektua moduan, Eibar-Gasteiz autopista ere gaizki ikusten du Arrasateko AHT-ren aurkako Asanbladak, eta aurka egoteko antzerako arrazoiak ematen ditu: bailarako trafiko arazoa ez konpontzea, kostea (120.000.000.000 pezeta) eta dirutza hori ordaintzeko erabiliko den peajea, eta eragin ekologikoa.

Azkenik AHT-ren aurkako Asanbladakoek diote obrak berehala hasiko direla, autopista aurtan eta trena datorren urtean, eta oinezkoek eztabaidatzeko aukerarik izan ez dutenez proiektuen aurkako lanean jarraituko dutela.

## Futboleko eta atletismoko fitxa didaktikoak euskaraz

*Kirola Euskaraz* programak, futbol eta atletismoko fitxa didaktikoak aurkeztu zituen joan den asteartean Udaletxean. Kirol bien historia, oinarriko arautegia, beroketak, lasaitze ariketak, komunika-

zioa, talde giroa e.a. luze bat jorratzen da fitxetan. Material hau, kirola euskara hutsean bizitzeko lagungarria izango da. Aurrera begira, igeriketa, karatea eta judoaren inguruko argitalpenak prestatzen dabilta.

## Birlandatzeko zuhaitzak erostea erabaki eta batzuk moztuta egon

Garagartzako Jaiberri base-riaren gunean dagoen zuhaitzia erosi eta gero birlandatzeko, 400 mila pezeta inguruko partida onartu zuen Gobernu Batzordeak. Leku berean, Garagartzako urbanizazioaren obrak

hasi dira eta, konструкторak zenbait zuhaitz moztu ditu zuloak egiteko. Udalaren eta konструкторaren arteko gaizki uler-tua egon da eta orain, geratzen diren zuhaitzak berriro baloratu beharko dira.

MARIANO ANDRADE SIGANO

**TAXIA**

24 orduko zerbitzua  
Hotelak / Aireportua /  
Ospitaleak...

Tel.: 79 96 87 • Tfno mobila: (907) 75 23 85  
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

TELLERIA  
AUTO-ESKOLA



Juan Carlos Guerra  
enparantza  
Tfnoa: 79 18 39  
ARRASATE

Mitarte, 18  
Tfnoa: 79 53 51  
ARETXABALETA

*Ipek*  
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE



# Egoterik ez zutenei eskaini zien ongietorria Pako Roblese

Herritik kanpo 16 urte egon eta gero, astearte arratsaldean Arrasatera bueltatu zen Pako Robles. Eroski parean hasi zen ongietorri ekitaldia; handik Portaloira auto karabana batek lagundu zion Pako Roblesi.

Portaloian zain zegoen jende mordoak, txalo artean hartu zuen Pako Roblesen etorrera. Ohiko aureskua eta lore eskaintza bukatu zenean, preso ohiak berak berba batzuk egin zizkien han bildutakoiei. Roblesen berbetan omenaldia han bildutako guztiek merezi zuten, baita ez zeudenek ere, eta inork baino gehiagok bidean geratu direnek. Horretaz gain, presoak etxean behar ditugula esan zuen Pako Roblesek, eta ez inguruko gartzeletan.

Omenaldi ekitaldia bukatu eta gero, Pako bera buru zela manifestazioa abiatu zen herriko kaleetan zehar. Gauean, berriz, beste era bateko ospakizuna Kataiden egindako ongietorri afarian.



## “Ez dut batere lorik egin”

Herrira iristerakoan bere lehen inpresioak jasotzeko asmoz, omenaldi biharamonean harrapatu genuen Pako Robles. Etxean zegoen. “Ondo nago, zentratu barik baina ondo. Atzo, egia esan, omenaldiaren kontu horrekin apur bat tokiz kanpo sentitu nintzen. Pentsa, gau osoan ez dut lorik egin, baina jarriko naiz poliki poliki. Herria? dena aldatuta eta denak aldatuta esango nuke, aurpegi berri asko eta ezagutzen ez dudak makina bat jende”.

## Maritxuko istiluak gaitzetsi

Goernu Batzordeak astelehenean egindako bilkuran, Maritxu Kajoi gauean Arrasaten izandako kale istiluak gaitzestea erabaki zuen aho batez.

Goernu Batzordeak kaleratutako komunikazio ofizialak, ostiraletik zapatu-arte gauean enkaputxatu talde batek egindako sabotai ekintzak salatzen ditu. Talde horrek herriko lau banketxetako sei kutxazain automatiko erre zituen. Horrez gain, alde zaharretik gertu dauden zenbait kaletan barrikadak egin ei zituzten zirkulazioa etenez. Goernu Batzordeak salatu nahi izan duenez, ekintza horrek suhiltzaileei iristea galerazteko egin ziren. Salaketa oharrak dioenez, larrialdiko beste edozein egoera hipotetiko gertatu izan balitz ere, bide erdian jarritako barrikadekin anbulantzien eta erreskate zerbitzuen bidea eragozten zen, horrek dakarren arriskuarekin.

## INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOKO IKASTAROAK 1997-98

Astelehenetik ostiralera • Goizez eta arratsaldez  
Taldea txikiak • Irakasle aditua

### OFIMATIKA

• Sarrera • Windows 95 • Word 7.0 • Excell • Access  
• Power Point • Corel • Photoshop

### INTERNET

Internet sarbidea  
Internet profesionalentzat  
WWW Diseinu eta komunikazioa  
Entrepresa birtualen sorkuntza  
Internet hezkuntzan  
Multimedia, grafika, publizitatea

### elkarkom internet s.l.

Nafarroa, 17 • 20500 ARRASATE  
Tel: 71 20 30 / 929 41 59 43  
http:// www.elkarkom.com  
E-mail: lan@elkarkom.com





## ARRASATEKO UDALA

Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailarekin  
Hitzartuta, Europako Gizarte Fondoaren Lankidetzarekin.

# Lanerako prestakuntzako ikastaroa. Baserriko Oilaskoen ekoizpena


**Helburuak:** Baserriko oilaskoen ekoizpen tekniketan ("Eusko-Label") 15 langabetu  
trebatu, ondoren autonomo bezala jardun ahal izateko.

**Nori zuzenduta:** Autoenpleguaren bidez nekazaritzan jarduteko interesa eta  
baliabideak eduki ditzaketen langabetuei.

**Ezaugarriak:** 200 orduko ikastaro praktikoa bat arlo horretan diharduten  
profesionalek emanda, hiru hilabeteko iraupenarekin, 1.997ko azaroan hasita.

**Izena emateko epea:** 97/10/15

JUSTIZI, EKONOMI, LAN  
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA



DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMIA,  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Europako Gizarte Fondoa



Fondo Social Europeo

Izenemateak eta informazio gehiago, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan,  
**79 09 00 telefonoan.**

## AUTOENPLEGUA ETA ENPRESA EKIMENARI BURUZKO IKASTAROA

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak enpresa ekimen berriak bultzatze-  
ko ikastaro bat antolatu nahi du, ezaugarri hauen arabera:

**Programaren helburuak:** Ekimen berriak eta autoenplegua suspertzea: enpre-  
sa-kultura zabaltzea eta enpresa proiektu bat garatzeko formazioa ematea.

**Nori zuzenduta:** Autoenpleguaren bidea jorrazteko eta negozio-ideia bat abian  
jartzeko asmoa daukaten promotoreei zuzenduta dago.

**Zer eskaintzen da:** 25-30 orduko ikastaro praktikoa bat promotore bezala  
prestatzeko eta negozio-ideia proiektu gauzagarri batean bilakatzen laguntzeko.

Interesatuta bazaude, hurbildu zaitez Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzu-  
ra, eskabide orria eta informazio gehiago jasotzera. Telefonoa: 79 09 00.



ARRASATEKO UDALA


Enplegu Zerbitzua ■





Maritxu egunean inauguratu zuten *Jakion* nekazal produktuen transformazio zentroa eta *Gaztainuzketa* baserri-ostatua Gatzagan. Maritxuko ardorik ez, baina sagardoa dastatu zuten inauguraziora gonbidatutakoak. Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko alkateak, plastikozko basoak jasota topa egin zuten nekazal diputatuarekin.

## TXIN TXIN GATZAGAKO PRODUKTUEKIN



## SEGI HORRELA BIKOTE!

Berrogeitamar urteko aldea dago argazki batetik bestera, baina oraindik Dolores Etxebarrieta eta Jesus Moreno mahai berdinarean inguruan jarrita daude bata bestearen alboan. Urte guzti horiek

elkarrekin bizi izana ospatu zuten joan den zapatuan. Lehenengo meza entzun San Frantziskon eta ostean, bazkaria Udalpen. Doloresek eta Jesusek seme bat eta hiru alaba dituzte. Zorionak bioi!



### Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

#### SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



### Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Erakusketa eta almazena:  
Kale Txiki, 3 - behea  
Tel.: 77 11 20  
Faxa: 77 11 20  
ARRASATE

Mota guztietako zoruak  
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak  
Lehioak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak  
Eta abar  
MATERIALEN SALMENTA





JON OZAETA

## URTEKO GAURIK DOTOREENA

Bakeak egin zituzten astoak eta dragoiak, horra hor Maritxuk aurtengorako gordeta zeukan miraria. Eta espektakularra izan barik, ez zen nolanhikoa izan, bertakook ondo dakigu eta historian zehar Musakolakoen eta kalekoen artean egon den maitasun-gorrotzko harremanean gertatu diren gorabehera trakets eta maitagarriak. San Juantan ikusiko da Maritxuren eskuak zerbaiteko balio izan duen. Libratuko da astoa erreketatik? Miraria alde batera, beti moduan dotoreziak agindu zuen Maritxu gauean. Mimo handiz gordetako aitajaunaren trajeak, eta jostunari dirutza polit baten truke enkargatutakoak soinean jantzita ibili



JON OZAETA

zen arrasatear asko eta asko. Traje edo soineko dotorea jantzita ere, askok

ez du itxura ederrik erakusten; gure argazkitakoak, berriz, ondo ederki daude.

## IZENA

### Onintza Lopez de Munain

25 urteko arrasatear hau Ekin Emakume Taldeko eta Euskalaneko dinamizatzaile berria da. Onintzak majisteritzako eta gizarte heziketako ikasketak egin ditu.

## DATA

### 1943-10-10

Eskola Politeknikoak irakaskuntza biderei ekin zion.

5 urte lehenago Unión Cerrajerako Aprendizaren Eskola hasita zegoen lanean, eta On Jose Maria Arizmendiarieta bertan zegoen. Bertuteen artean bazuen akats bat ere eskola hark, bakarrik bertako langileen semeendako izatea. Hori ikusita On Jose Mariak herritar guztiendako izango zen eskola sortu zuen, lehenengo Eskola Profesional izenarekin, nahiz eta gero Eskola Politeknika izenarekin ezagutu. 1947. urtean bertako ikasketen baimena lortu zen, 11 ikasle zituela.

**MECA**  
**GRUA ZERBITZUA**

Grua tel.: 989 34 98 29  
Renault Asisten.: 900 365 000

24 orduko zerbitzua 365 egunetan

**MECA**



**GAZTE  
KONTUA**

**abenturazkoa**



**Abenturazalea bazara,  
eskura ezazu  
Erloju - Iparrorratz -  
Termometro hau.**

**Informa zaitez sukurtsal  
honetan edo gazteen  
informaziorako  
901 200 000 telefonoan.**



**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**

ERLOJU - IPARRORRATZ - TERMOMETROA - ERLOJU - IPARRORRATZ - TERMOMETROA - ERLOJU - IPARRORRATZ





Gauzak ondo badoaz azaroaren bukaeran inauguratuko da Ospital berria.

# Laster Ospital berria Deba Garairako

**E**zaguna zen ospital zaharrak itxura aldatzea behar zuela. Jose Luis Angulo gerenteak ospital zaharrak duen toki eta erosotasun falta aipatu ditu gabezia garrantzitsutzat. "Garbi dago une honetan ospitala ez dagoela baldintza onean, logelak, pasiloa eta itxaron gelak ez dira atseginak. Adibide modura, oheak ez dira atetatik sartzen eta gaisoa mugitzeko kamila txikiagoak erabili behar dira. Ondorioz gaisoak ez daude gustura, ezta bertako langile-

**Herritarren eta ospitaleko langileen beharrei erantzuteko eta era berean Deba Garaiko zerbitzu medikua hobetzeko, 1994an hasi ziren ospital berriaren obrak. Eraikintza modernoa lortzeko eta erabiltzaileen eskariei erantzuteko jarri zen abian proiektua.**

**Oraindik ospital berriko obrak bukatu barik egon arren, badirudi helburuak lortzeko bidean daudela. Horrela den edo ez jakiteko abendura arte itxaron behar, inaugurazioa aurreikusita dagoen data arte.**

ak ere, lan egiteko lekurik ez dutelako".

## OSPITAL BERRIAREN ZERBITZUAK

Aldaketa behar zen eta aldatzea lortu da. Ospital berria

zabaltzeak dena dela, ez du esan nahi zaharra itxiko denik. Eraikuntza berrian ondorengo zerbitzuak joango dira: logelak, bakoitza bere komunarekin; profesionalentzat kontrol gelak; sendagile, eri-

zain eta administrazio bulegoak; familiak atenditzeko toki bereziak eta kafetegia. Aldaketa horrekin ospital zaharrak berregituraketa esanguratsua izango du. Libre gelditu diren tokiak orain dauden zerbitzuak hobetzeko erabiliko dira. Laborategi, farmazia eta X izpien guneak erabat handituko dituzte, kirurgia alorra bezala. Gainera Urpan, erreanimazio unitatean, ohe gehiago jarriko da. Baina berrikuntza handiena zabaldu behar den Dia Unitatea litzateke. Aipatutako



zerbitzuak premiazkoarekin batera eraikuntza zaharrea egongo dira behar bezalako egokitzapenarekin eta hobekuntzarekin. "Ospital berriak aukerak emango dizkigu zerbitzu berriak ezartzeko eta Deba Garaiak behar duen eskariari modu egokian erantzuteko".

## ALDAKETAK EGOITZAN ETA LANGILEGOAN

Bi eraikuntzako ospitala izateak langileen lana egiteko moduak aldatu egingo du. "Langilegoaren berrantolaketa bat egingo dugu, dagoeneko hasi garena. Zerbitzu eta unitate bakoitza langilez hobeto hornituta egongo da. Ildo berean kirurjia sailaren egituraketak eta Dia unitatea jartzeak, langile kopurua handitzea ekarriko du. Bestalde eraikuntza berriari guztira 72 ohe egongo badira, lehen baino 8 gutxiago, Dia unitateari esker murrizketa ez da igarriko".

Sei ohe izango dituen Dia unitatea inaugurazioarekin batera jarriko da abian. Unitate hori ebakuntza sinpleetan erabiltzen da. Katarata edo ernia moduko ebakuntzetan ematen den anestesia ordu gutxitan joaten denez, pertsona horrek gaua etxean igaro ahal izango du, ondorengo egunetan gaisotasunaren jarraipen zuzena anbulategian eginez. "Orain arte pertsona horrek ospitalean pasatzen zuen gaua. Horrek jakina ohe bat gehiago eskatzen zuen; orain berriz, horrelako ingresoak ez dira egingo derri-gorrezkoak ez badira".

Medikuei egiten zaizkien bisitak dira ospitaleko beste zerbitzuetariko bat. Arrasaten gaur arte bezala anbulategian egingo dira. Egoitza horrek hala ere, ezagutuko du aldaketarik, berritzeko asmoa dago eta. "Anbulategian egiten diren kontsultak azkartu nahi ditugu. Horrek behar-



Gaisoa gustora egoteko ospital moderno eta berria irekiko da Arrasaten. Ospital zaharra eta berria lotuta egongo dira pas...

bada, lan egiteko era aldatu egingo du, baina beti ere gaisoaren onerako. Gure asmoa kontsulten zain egon behar den denbora murriztea da. Nolanahi ere esan behar dut, Arrasaten inguruko ospitaleetan baino gutxiago itxaroten dela, nahiz eta erabiltzaileek

nahiko luketena baino gehiago izan".

## AURREKONTUA

Eraikuntza berriak 625 milioiko aurrekontua du. Osakidetza proiektua izanda, Eusko Jaurlaritzari egokitu zaio

ordainketa. Diru kopuru horretan eraikuntza zutik jartzea, inguruko urbanizazioa eta ekipamendu guztia sartzen dira.

Une honetan ospitalizazio fasea amaituta dagoela esan daiteke, hornikuntza baino ez da falta. "Altzairuak hile honetan eta hurrengoan etorriko

**Ospital berria zabaltzeak ez du esan nahi zaharra itxiko denik. Ospital berriari logelak, profesionalendako kontrol gelak, sendagile, erizain eta administrazio bulegoak, familiak atenditzeko toki bereziak eta kafetegia egongo dira.**





pasabaten bidez.



Jose Luis Angulo Ospitaleko gerentea bere bulegoan.

zitekeelako. "Kontratistek ondo bete dute epea. Atzerapenak garraio eta eraikuntza grebategatik izan ziren eta ez dirua falta zelako. Diruarekin ez dugu inoiz arazorik izan. Aurretik ondo aztertu zen proiektua eta garbi geratu zen zenbateko gastua izango zuen".

**ERAIKUNTZEN ABANTAILAK**

Ospital berriak onurak baino ez dituela ekarriko uste du Angulok. Langileendako ilusio handia izan da ospitala egitea eta euren lanean asko igerriko delakoan daude. Gaisoak berri bere ongizaterako pentsatuta dauden instalazio batzuk izango ditu, etxean moduan beharbada ez da sentituko, baina bai ondo zainduta eta leku atseginean.

Bi hilabete barru atek zabalduko dituen ospital berriekin Deba Garaiko Osasun zerbitzua guztiz hornituta geratuko da. Horrek jakina, ez du esan nahi datozen urteetan berrikuntzak eta proiektu berriak landuko ez direnik. Ospitaleko arduradunak gertu daude herritarren behar guztiak asetuko dituen goi mailako ospital moderno bat egiteko. Orain egoitza berriekin aurrepauso garrantzitsua lortu da, baina ez da azkena izango. ■

Itxaro Zubillaga

dira". Inguruak txukuntzea, hau da, urbanizatzea ere falta da, baina hilabeteen lan horiek bukatuta egotea espero dute. Era berean eraikuntza zaharra eta berria lotzeko egin beharreko konexioak azaroan gertu egon beharko lukete eta baita kafetegia ere. Gerentea-

ren berbetan inaugurazioa azaroaren bukaeran edo abenduaren hasieran izan daiteke, baina data jartzea ez da Arrasateko ospitaleko zuzendarien ardura. Obra guztiak prest dagoenean Osasun kontseilariak emango du jakitera inaugurazioaren eguna.

**ATZERAPENAK ZERGATIK?**

Ospital berriaren lehen harria jartzen hasi zirenetik gaur arte denbora dexente igaro da, tartean obrak etenaldiak ere izan ditu. Ospitaleko lanak geldi egon ziren bitartean hainbat zurrumurru zabaldu zen herrian, diru faltategatik izan

**Ospitaleko datuak**


Ospital batean urtean zehar egoten den jende mugimendua ikaragarria da. Ingresoak direla, kontsultak, jaiotzak... Taula honetan urtarrietik abuztura arte Arrasateko ospitalean jaso ditugun hainbat datu ezagutuko duzue.

**Urtarrietik abuztura arte**

• Ingresoak.....	2.590
• Ebakuntzak.....	1.844
• Jaiotzak.....	310
• Hildakoak.....	65
• Kontsultak.....	41.796

**Arduradunek ospital berriak onurak baino ez dituela ekarriko uste dute. Langileek euren lana hobeto egiteko toki eta erosotasun gehiago izango dute.**





Josemi Elizburu 21 urteko txirrindulari atxabaltarra.

## Iberdrolako txirrindularia


# Josemi Elizburu

Josemi Elizburu 21 urteko txirrindulari atxabaltarra Alegin jokaturako Mundial aurreko probaren irabazlea izan zen, erlojuaren kontrako modalitatean. Lasterketan onena zela erakutsi arren, lorpenak ez dio Mundialera joateko aukerarik eman. Josemi denboraldi honetan Estatuko afizionatu mailako lasterketa gehienetan izan da, lehen hamarren artean sailkatuz. Zamorako bueltako erlojuaren kontrako etapa irabazi egin zuen eta baita erlojuaren kontrako Euskadiko txapelketa ere.

Elizbururi denboraldi eta palmares ona edukitzeak ez dio balio izan Mundialean izateko. "UCIk, nazioarteko txirrindulari elkarteak, denboraldia hasteaz bat mundialean parte hartuko duten txirrindulariak aukeratzen ditu. Gaur arte, aurreko denboraldiko lana hartzen da kontuan aukerake-

ta egiteko. Logikoa izan edo ez, selekzionatzailearen erabakia da eta horren aurrean txirrindulariok ezin dugu ezer egin. Nik Mundial aurreko proban parte hartu aurretik banekien aukeraketa egina zegoela, baina irabaziz gero uste nuen beharbada aukeraren bat izan nezakeela. Ez da horrela izan eta orain datorren urtean Mundialean izateko egin beharko dut lan". Duela pare bat hilabetetik selekzionatzaile berria den Rodriguez Magrok orain arteko sistema erabiltzen badu, eta Josemik egin duen denboraldia kontuan hartuta, logikoena litzateke datorren urtean atxabaltarra ere Mundialean izatea. Hori jakina, selekzionatzailearen esku dago. Mundialeko txartela lortu edo ez, Elizburuk gogor lanean jarraituko du, bere helburu eta ametsa profesionaletara jauzia egitea da eta.

## RUGBYA Lehen partidu ofiziala




Patxi Gorosabelen mutilek zer egiteko gauza diren erakusteko lehen aukera izango dute domekan Mungiaren kontra. Bizkaian jokaturako den norgehiagoka eguerdiko 12etan hasiko da. Aurrendenboraldian jokaturako partiduetan Arrasatek emaitza onak lortu ez arren, entrenatzailearendako horrek ez du ezer esan nahi, hasierako astantan batez ere fisikoa lantzen ibili direlako. Arrasatearrak baikor daude denboraldiari begira eta esperientzia dutenez, goialdean ikusten dute euren burua.

## SASKIBALOA Hirugarrenean bai



Denboraldiko hirugarren partidurako Urdaneta taldearen bisita jasoko du Arrasate saskibaloia taldeak. Iturripen zapatuan arratsaldeko 6etan jokaturako da neurketa. Iker Zubiriak zuzentzen duen taldeak lehen ihardunaldian erraz irabazi zuen, eta bigarrenean txarto jokatu, galdu. Asteburu honetan berriro puntu bila kantxaratuko dira eta teoriar aurkaria helburua lortzeko modukoa da.

## ESKUBALOA Gasteizen zita



El Pilar eta Arrasate izango dira nor baino nor zapatuan Gasteizen 7etan. Jesus Mari Herreoren mutilek ez dute ondo hasi denboraldia. Bi partidu jokatuta eta biak galdu. Entrenatzailearen ustez taldea berria

eta gaztea denez, denbora eta konfidantza hartzea behar du. Horrez gain, erasoko jokoa hobetzen badute lanik, gaur arte aurrealdean ikusi da eta arazo handiena. Datorren zapatuan aurrean izango duten taldea sailkapeneko 7. tokian dago, 2 punturekin.

## FUTBOLA Mutilek eta emakumeek etxetik kanpo



Mutriku izango da Preferente mailako Mondra taldearen arerioa 6. ihardunaldian. San Migel futbol zelaian arratsaldeko 4.30etan jokaturako da partidua domekan. Mutriku iaz ondo bukatu bazuen ere, aurtun makal hasi du denboraldia. Lau partidu galdu eta bakarria berdindu ondoren, 18. tokian dago. Mondragoetarrak itxuraz sasoi suago daude. Horren erakusgarri sailkapenean betetzen duten 4. tokia.

Mondrako emakumezko taldeak Gernikaren kontra jokaturako du, domekan goizeko 11etan Gernikan. Lehia handiko partidua izan daiteke.

## PILOTA Bi txapelketa



Infantil mailako pilotariak Santamastxapelketako partidua izango dituzte zapatuan arratsaldeko 4etatik aurrera Iturripen. Eskuz banaka gutxira 9 partidua jokaturako dira. Seniorrek berriz, Gipuzkoako taldeen arteko txapelketako partidu izango dute Intxaurren zapatuan arratsaldeko 5etan. Arrasateko ordezkariak Mujika eta Uribarren.





Rugbyko beterano taldeak denboraldiko aurkezpena egin zuen.



Hauek dira igeriketan Arrasate ordezkatzuko duten kirolariak..

## Herensugeak: beterano eta sasoitsu

Herensugeak beterano taldea gertu dago aurtengo denboraldiarekin hasteko. Hauek ez dute neurketa ofizialik jokatzen, baina bai lagun artekoak. Iparraldera, Bordelera eta Madril aldera joaten dira bertako talde beteranoen kontra indarrak neurtzera. Herensugearen filosofia kirola egiteaz gain, gozatzea eta ondo pasatzea denez euren legea ondo betetzen ahalegintzen dira.

Hala ere, talde honetan dena ez da juerga izaten, astean zehar euren kabuz entrenatzen dute. Batzuk gainera Seniorren entrenamenduetara joaten dira korrika egin eta teknika lantzeko. Herensugeak taldeko jokalarri nagusia Jose Mari Lizaranzu da, 47 urterekin. Gazteena 31 urteko Ricardo Ercilla. Taldean 26 jokalarri daude eta adinaren batz bestekoa 39 urtekoa da.

## Arrasate Igeri taldearen aurkezpena

Arrasate Igeri taldeak astelehenean egin zuen denboraldi berriaren aurkezpena. Federatuta 55 igerilari daude. Nagusien artean aletekin igeri egiten dutenek 20 bat lagun eta klasikoan dabiltzanak 10 igerilari. 14 urtetik beherakoek klasika modalitatean aritzen dira. Aurtengo asmoa aletadun igerilarietara dagokienez, Estatuko txapelketan parte hartzea litzateke. Modalitate honetan


Ane Lopez de Bergara izan daiteke igerilari esanguratsuenen artean. Klasikakoak Gipuzkoa mailan lan ona egiten saiatuko dira. Denboraldiko lehen erronka urriaren 18an izango dute. Alebinek ezik beste guztiek hartuko dute parte lehen proban. Aurten entrenatzaile berriak ditu igeri taldeak. Nagusien entrenatzailea eta koordinatzailea Aritz Arrieta izango da; gazteena Sonsoles Barroso.

## Mari Jose Gil primeran beteranoetan

Mari Jose Gilek, 57 urteko maratoilari arrasatearrak, Malagan jokatu zen Estatuko maratoi erdiko txapelketan hartu zuen parte. Orduete 41 minutu eta 11 segunduko denbora eginez, 54. postuan sailkatu zen. Nazioarteko Marbella hiria proban ere izan zen. 21 kilometro eta 97 metroko ibilbidea, orduete 47 minutu eta 25 segundutan bete zuen. Pasa

den asteburuan berriz, Zumaia-ko krosean izan zen eta 6. postua eskuratu zuen, orduete 36 minutu eta 41 segunduko denborarekin.

Arrasateko Atletiko taldeko kadeteak Ermuko Jose Merino Memorialean bikain ibili ziren domekan. Alazne Ruiz de Munain 4. postuan sailkatu zen eta mutiletan lehena Fernando Nogales.



Mari Jose Gilek 57 urte izan arren ez du amore ematen.





Ongi etorri  
Zaldibar  
txapelketa!

## Laburrak

### ■ ARRASATE PRESS-EN ZALDIBAR TXAPELKETA

Hemen dugu berriro hain fama-  
tua egin den Zaldibar txapelke-  
ta. Herriko gazte ugari elkartzen  
duen txapelketa zapatuan hasi  
zen, ohiturari eutsiz Maritxu  
Kajoi biharamonean. Arrasate  
Pressek azken boladan bezala,

jarraipen zuzena egingo dio eta  
ekainera arte bertan gertatzen  
denaren berri jaso ahal izango  
duzue Zaldibarko gehigarrian.  
On egin dagizuela!

### ■ LEHEN GOLA

Aurtengo txapelketari hasiera  
emateko ohorea Ainarexia eta

Bukanak taldeek izan zuten.  
Lehen gola Bukanak taldeko  
Gotzonek sartu bazuen ere, par-  
tidu bukaeran Ainarexia nagu-  
situ zen 11 eta 4.

### ■ TRAJEAK ETA ZARATA EZ ZEN FALTA IZAN

Zapatu goizean ez ziren gutxi

izan trajez jokatu zutenak. Jen-  
deak ere ondo erantzun zuen;  
harmailetan giro polita. Kan-  
txan berriz, denetik ikusi zen;  
jokalaria batzuk ondo, beste  
batzuk itxuran eta egon zen ezi-  
nean jokatzeari utzi zionik ere.  
Lana batez ere garbitzaileek  
izan zuten Iturripen.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	1	1	0	0	8	2	2
AC Surcos	1	1	0	0	4	1	2
Pipwhis	1	1	0	0	7	2	2
Ganbelas	1	1	0	0	7	3	2
Nuevo taberna	1	1	0	0	2	1	2
Tamagotxi	1	1	0	0	2	1	2
Sokoakoak	1	1	0	0	3	2	2
Branka Taberna	1	1	0	0	4	3	2
Ke Oxtias	1	0	1	0	1	1	1
Jotakabau	1	0	1	0	1	1	1
Leya	1	0	0	1	3	4	0
Babjana	1	0	0	1	2	3	0
Potosorri	1	0	0	1	1	2	0
Garaje Oscar	1	0	0	1	1	2	0
Nacex	1	0	0	1	3	7	0
KKjauri	1	0	0	1	2	7	0
Cartonajes Igamo	1	0	0	1	1	4	0
Onaniereng	1	0	0	1	2	8	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Orlando piratas	1	1	0	0	8	1	2
Betrayer	1	1	0	0	7	1	2
Zotz	1	1	0	0	6	1	2
Rotor De Bolbog.	1	1	0	0	8	2	2
DKB	1	1	0	0	3	1	2
Ainarexia	1	1	0	0	11	4	2
Irati STS	1	1	0	0	4	2	2
Jey holigans	1	1	0	0	2	1	2
DA Iriztu	1	0	1	0	3	3	1
Fraguel Gol	1	0	1	0	3	3	1
Pepelus	1	0	0	1	1	2	0
Komando alpargat	1	0	0	1	2	4	0
Bukanak	1	0	0	1	4	11	0
Arrogoi Taberna	1	0	0	1	1	3	0
Sobr. de claro	1	0	0	1	2	8	0
Jako al rey	1	0	0	1	1	6	0
Epeh	1	0	0	1	1	7	0
Lautherbrunen	1	0	0	1	1	8	0

## Emaitzak

### A taldea

Ke oxtias 1 - Jotakabau 1  
 Sokoakoak 2 - Babjana Sexy 2  
 Onaniereng 2 - Argi Ibili 8  
 AC surcos 4 - Cartonajes Igamo 1  
 Pipwhis 7 - KKjauri 2  
 Ganbelas 7 - Nacex 3  
 Nuevo Taberna 2 - Garaje Oscar 1  
 Tamagotxi 2 - Potosorri 1  
 Leya 3 - Branka Taberna 4

### B taldea

Pepelus 1 - Jey Holigans 2  
 Komando alpargat 2 - Irati STS 4  
 Epeh 1 - Betrayer 7  
 Orlando Piratas 8 - Lautherbrunen 1  
 Jako al rey 1 - Zotz 6  
 Rotor De bol. 8 - Sobr. de Claro 2  
 Ainarexia 11 - Bukanak 4  
 Arrogoi Taberna 1 - DKB 3  
 Fraguel gol 3 - DA Iriztu 3

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Totem	1	1	0	0	6	0	2
AT Celaya	1	1	0	0	3	0	2
Lorategi	1	1	0	0	6	1	2
Naranaj Mekanika	1	1	0	0	11	2	2
Txontxongilo	1	1	0	0	7	2	2
Los Heredia	1	1	0	0	3	1	2
Makai	1	1	0	0	4	2	2
Aldapa Taberna	1	1	0	0	3	2	2
Koka Juniors	1	0	1	0	4	4	1
Kamasutra	1	0	1	0	4	4	1
Etxe Mobil	1	0	0	1	2	3	0
Elisabeth	1	0	0	1	2	4	0
Insert Coin	1	0	0	1	1	3	0
Aurrera Bolie	1	0	0	1	2	7	0
Borroch roll	1	0	0	1	2	11	0
Txeyenex	1	0	0	1	1	6	0
Nationale Nederl.	1	0	0	1	0	3	0
Iluna Taberna	1	0	0	1	3	6	0



**ALTXORRAREN BILA.** Zer galduko ote zitzaion argazkiko atezainari? Baloia ez. Orduan zer da? astebete daukagu asmatzeko, baina egiten duen keinuagatik zerbait garrantzitsua izan behar du!

### D taldea

Txontxongilo 7 - Aurrera Bolie 2  
 Aldapa Taberna 3 - Etxe Mobil 2  
 Borronck Roll 2 - Naranja Mek.11  
 Lorategi 6 - Txeyenex 1  
 Totem 6 - Iluna Taberna 0  
 Makai 4 - Elisabeth 2  
 Koka Juniors 4 - Kamasutra 4  
 Nationale Nederl. 0 - AT Celaya 3  
 Los Heredia 3 - Insert Coin 1

**Aldi Ibi**  
 Zigorrola, 1 • 1. pabiloia  
 Tel.: 71 20 02

## Hurrengo partiduak

### Urriak 11, Larunbata

#### Zaldibar

8.50 Zotz - Sobredosis de Claro  
 10.00 AT Celaya - Insert Coin  
 11.00 Ke Oxtias - Sokoakoak  
 12.00 Naranja Mekanika - Txeyenex  
 13.00 Jotakabau - Babjana Sexy  
 14.00 Txontxongilo - Aldapa taberna  
 15.00 Argi ibili - Cartonajes Igamo  
 16.00 Pepelus - Komando Alpargat  
 17.00 Onaniereng - AC Surcos  
 18.00 Kamasutra-Nationale Nederl.  
 19.00 Potosorri - Branka Taberna

### Iturripe A

13.00 Jako al rey - Rotor de Bolbogra-  
 do  
 14.00 KKjauri - Nacex  
 15.00 Jey Holigans - Irati STS  
 16.00 Aurrera Bolie - Etxe Mobil  
 17.00 Epeh - Orlando Piratas  
 18.00 Pipwhis - Ganbelas

### Iturripe B

13.00 Borroch Roll - Lorategi  
 14.00 Betrayer - Lautherbrunen  
 15.00 Iluna Taberna - Elisabeth  
 16.00 Ainarexia - Fraguel Gol  
 17.00 Bukanak - Arrogoi taberna  
 18.00 DKB - DA Iriztu

### Urriak 12, igandea

#### Zaldibar

9.50 Totem - Makai  
 11.00 Nuevo taberna - Leya  
 12.00 Koka Juniors - Los Heredia  
 13.00 Tamagotxi - Garaje Oscar



TERESA ALTUNA (HARREMAN-EN ANGOLA PROIEKTUAREN LEKUKOARIA)

# “Laguntza, eskertu bakarra”

**A**rrasateko Harreman taldeak gure artean bultzatu duen Angolako proiektua amaituta dago. Hirugarren mundu taldearen umezurtz-etxe bat hornitzeko materiala bidali du, eta Eusko Jaurlaritzak emandako diruari esker, umeendako etxe berria ere egin ahal izan da.

Teresa Altuna mertzendaria urrestildarra Euskal Kooperantearen saria jasotakoa da. 29 urte daramatza Angolan eta Harremanek bidalitako laguntzaren fruitua ikutu eta sentitu du. Orain oportetan da gure artean eta aprobetxatu nahi izan dugu Angolako egoeraren lekukotasun zuzena jasotzeko.

**- Zertan erabili da hemendik bidalitako dirua?**

- Angolako gerra zibilak umezurtz ugari utzi du kaleetan. Gu geure etxean ume horiek hartzen hasi ginen, lehenengo bat, gero bi, baina azkenerako kabitu ezinik geunden. Gerratik alde egindako familia baten etxea lortu genuen umeak zaintzeko, eta Harremanek emandako diruarekin koltxoiak, oheak, arropak, janaria eta beste gauza asko bidali digute Euskal Herritik. Gainera, Eusko Jaurlaritzak ere dirulaguntza bat eman digunez, umezurtzendako etxe berri bat lortu dugu.

**- Nolakoa da zuek Angolan bizi zareten lekua?**

- Malange hirian bizi gara, 200.000 biztanle inguruko

hiria. Urtetan laguntza humanitarioari esker bizi izan da. Gerrak gogor zigortu du hiri hau. Batez ere nekazaritzatik bizi ziren han, baina gerraren ondorioz lur gehienak pertsonen aurkako minez



**“Gerrak apurtutako familietako umeak dira. Harremanek emandako diruarekin koltxoiak, oheak, arropak, janaria eta beste gauza asko bidali digute Euskal Herritik”**



# Arririk ez. Beharra dago”

josita daude eta ezin dira lurrok aprobetxatu. Kalte handia ari dira eragiten mina horiek. Mutilatutakoak ere, milaka daude.

**- Minak hemen egiten direla jakitean, ze pentsamendu etortzen zaizu burura?**

- Tristura handia ematen dit. Badakit lan beharra dagoela, gizonak lan egin behar duela, baina asma ditzatela beste gauza batzuk. Halakoak egitea agintzen dutenek bihotzik balute, beste modu bateko negozioren bat bilatu beharko lukete.

**- Zenbat ume daukazue zuen etxe berri horretan?**

- 50 ume inguru izango ditugu. Gerrak apurtutako familietako umeak dira. Gerragatik gurasoak hil edo alde egin zuten eta umeak kalean geratzen ziren edo gurasoek ezin atendituta. Guk

ume horiek jaso ditugu eta gure etxean zaindu edo beste familia batzutan banatu. Gerra bukatu denez, umeen guraso edo familiarterko batzuk agertuz joan dira eta euren umeak eraman dituzte, baina oraindik 50en bat badauzkagu zaintzeko gure Malangeko etxean.

**- Eta aurrera begira ze proiektu daukazue?**

- Orain gure asmoa etxeren egoera eta umeen bizi kalitatea hobetzea da. Etxea handitu eta hobetu eta ume-

ei eskola eman nahi diegu.

**- Zuk nola bizi izan duzu Angolako gerra?**

- Beti laguntzeko eta zer-bait egiteko prest. Gerra batean mixeria eta arriskua toki guztietan dago. Baina gure bizitzak ere, ez du beraienak baino gehiago balio. Eta hantxe zegoen gure lana, beraiekin batera.

Hiltzeko arriskuan jende asko egon ginen momentu askotan, baina ez da horretan pentsatzen. Zerbait egiteko interesa dagoenean ez da

arriskua ikusten.

**- Oporren ostean Angolara bueltatzeko gogorik bai?**

- Bai. Han asko dago egiteko. Hemengo bizitza estilo oso diferentea da. Ni ez nau betetzen, ez nago honetarako eginda. Hemen bezala ondo bizitzea gauza ederra da, jendeak eskubidea dauka, baina ez ditzatela zeharo ahaztu okerrago bizi direnak.

**- Hemengo laguntasuna eskertzen da han?**

- Askok. Ez eskertu bakarrik. Beharra dago. Guretzat ate handi bat irekitzea da. Eta bertakoek ere izugarri eskertzen dute. Egoera askotan lasaitasuna ekartzen du hemengo laguntzak. Esker handia eman nahi diogu Harremani gurekin izan duen interesagatik.

“Gerra batean arriskua toki guztietan dago. Baina gure bizitzak ere, ez du beraienak baino gehiago balio. Hantxe zegoen gure lana, beraiekin batera”

## EXTRA

**Deba Garaiko Kazeta**

Adi, Arrasate:

**Urriko hilabete honetan**, Deba Garaiko EXTRA gehigarria, astean hiru aldiz (astearte, ostegun eta larunbatetan) argitaratuko da. Prezioa 50 pezetakoa izango da eta goizean goizetik kiosko guztietan egongo da salgai.

EXTRA-n gure eskualdeko bereratzari herrietako albisteak eta informazio zehatza jasoko duzu: **Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola, Elgeta, Aramaixo eta Gatzaga.**

Herrietako kronikak, erreportai interesgarriak, iritzi artikulak, kultur gaiak... kioskoetan aurkituko duzu.

Gogoratu, hilabete honetan, **asteartero, ostegunero eta larunbatero** EXTRA kioskoetan aurkituko duzu.

**EXTRA. Tel.: 79 82 68**

## HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte eta ostiraletan 5etatik 8etara.**

Tel.:

**79 26 99**



Opera eta Euskadiko Orkestra, azaroan

# Udazken kulturala

Urriari hasi eta abendua bitartean, antzerki, musika eta zinez osatutako eskaintza kulturala izango dugu Amaia antzokiaren eskenategian. Ohiko bihurtu denari aurten Gesalibarko Aita Menni eta San Juan de Dios

ospitaleen mendeurrenaren inguruan antolatutako musika hamabostaldia eta ekin-tzak gehitu behar zaio. Hona hemen etorriko denaren aurrerapena. Egin zure aukera!

## ZINE KLUBA (Amaia antzokia)

- Urriak 16: *Georgia*.
- Urriak 23: *Four Rooms*.
- Urriak 30: *Los ladrones*.
- Azaroak 6: *Abierto hasta el amanecer*.
- Azaroak 13: *El secreto de la isla de las focas*.
- Azaroak 27: *El hombre de las estrellas*.

## HAURRENDAKO ANTZERKIA (Amaia antzokia)

- Urriak 11: *Txoronpio, Pantxi eta Pantxo* pailazoak.
- Abenduak 13: *Gorakada* antzerki taldea. *Pinotxo 2000*.

## HELDUENDAKO ANTZERKIA (Amaia antzokia)

- Urriak 18: Ados. *Lamiak*.
- Azaroak 14: *Tanttaka. Shakespeare dena (gutxi gora behera)*.
- Azaroak 15: *Tanttaka. Todo Shakespeare (o casi)*.

## GESALIBARKO OSPITALEAN

Gesalibarko ospitalen mendeurrenako ekitaldiak (musika hamabostaldia):

- Urriak 24: *Goikobalu* abesbatza (San Frantzisko eliza).
- Urriak 25: Juan Carlos Irizaren *Barnetik* diskaren aurkezpen kontzertua (Amaia antzokia).
- Azaroak 1 eta 2: Opera, Bulgariako opera konpainia nazionalaren eskutik. Pucciniren *Tosca* eta *Mme. Butterfly* (Amaia antzokia).
- Azaroak 7: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (Amaia antzokia).
- Azaroak 8: Txomin eta Urbil Artola (Amaia antzokia).

## SANTA ZEZILIA

- Azaroak 22 edo 23: Juan Arzamendiren *Mari Errauskin* operaren estreinaldia, San Viator ikastolak antolatuta (Amaia antzokia).

## GAZTEMANIAK

- Urriak 31: Pop-rock kontzertua. Taldeak: *La oreja de Van Gogh* (Donostiako pop-rock lehiaketako irabazlea), *Koko Castillo* eta *Feeling good* (Amaia antzoki-hall-ean).

## AKORDEOI LEHIAKETAK

- Azaroaren 27tik abenduaren 8ra bitartean.

## aste gazte

### ■ BEKAK

• Kutxa Fundazioak, Sokrates, Erasmus eta Leonardo programetan jadanik onartuta dauden ikasleentzat, dirulaguntzak deitu ditu. Epea: urriak 31.

• Euskal Herriko zenbait zentzutan (Ikerlan, Tekniker, Ideko, Inasmet...) ikerkuntza eta garapen teknologikorako bekak, lizentziatuei zuzenduta. Epea: urriak 31.

### ■ LANA

• Basauriko Udala: Geografia informatikako sistemaren administratzaile lanpostu bat. Epea: urriak 17.

• Bilboko Udala: 5 liburu-zain laguntzaile. Epea: urriak 17.

• Ultzamako Bailara: Basozain lanpostu bat. Epea: urriak 18.

• Nafarroako Foru Komunitatea: administrazio ekonomikorako teknikari lanpostu bat, 3 arkitektu, segurtasuneko erdi mailako 2 teknikari, eta igeriketa begirale bat. Epea: urriak 22.

• Leitza, Goizueta eta Arano Mankomunitatea: 4 familli langile. Epea: urriak 22.

### ■ IKASTARO GAZTEAK

• Hastapen mailako dantza karibear ikastaroa: urriaren 20tik azaroaren 19ra, astelehen eta asteazkenetan, Musakolako saloian. Matrikula: 4.000 pta (2.500 pta ikasle eta langabetuentzat).

• Irrati tailerrak: A) irrati kontrola: urriak 14an hasi eta abenduak 16 arte. Astearteetan, 7etatik 9.15ak arte. B) Erredakzio eta lokuzio tailerra: luzapen eta ordu berarekin, asteazkenetan burutuko da. Matrikula: 3.000 pta (1.500 pta ikasle eta langabetuentzat).

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65



# PEUGEOT 106

bat daukazu

# 1.095.000

Pta.tik aurrera.

Diesel-gasolina motoreak.

60tik 120ra arteko potentziadunak.

Finantzaketa 6.9 TAE-an.



**EKOMOBIL**


Zaldispe, 2 • ARRASATE  
(Ospital ondoan)  
Tel.: 79 50 71



**PEUGEOT**



# antzzeria



# LA MIA AK.

ADOS  
TEATROA

- ▶ **Amaia antzokian**
- ▶ **Urriak 18, larunbata**
- ▶ **Gaueko 10.30etan**
- ▶ **Sarrera: 800 pta.**  
(Gazte Txartelarekin: 600 pta.)



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



## ■ Eider Otxoa

### MUSAKOLAKO GAZTE TXOKOKO DINAMIZATZAILEA



**N**ondik ezagutzen duzu zuk Eider? Tebistan ikusi duzu? Edo karaokea edo beste jairen bat aurkeztzen akaso? Institutoko jangelan zaindari lanetan? Udalekuetatik ezagutzen duzu? Gazte Txokotik? Ez didazu orain esango, ez duzula ezagutzen. 23 urte bete berriak, Arrasateko saltsa guztietako perejila da aretxabaletar hau. Eman dituen erantzunen artean, bat behintzat, badakigu egia dela: Alaitasuna transmititzen duela.

1. Zein da zure horoskopoa? Libra.
2. Sinestuna zara? Bai, baina nire erara.
3. Animalia bihurtzekotan? Nagoenetan geratuko nintzateke.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Super aktibitatea/Alaitasuna transmititzea.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Elkar ulertzeko ezer egiten ez dutenek.
6. Amets bat? Momentuan momentuko nahiak bete ahal izatea.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Oztopo guztiak.
8. Gertakizun historiko bat? Oraindik gertatzeko daudenak.
9. Nor miresten duzu? Benetako lagunekin sinesten dut.
10. Zeri diozu beldurra? Inaktibitateari.
11. Zertaz damutzen zara? Aktoreen munduan sartu ez izanaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Atzo.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Barre gus-tora egiten duen jendea.
14. Eta zuri? Lasaitasuna.
15. Lanbidez aldatzekotan? Beraneante.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Udala-ko inguruak.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Irakurtzeari den-bora gehiago eskaintzea.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *Euskaldunon Egunkaria*.
19. Gustoko janari bat? Goseak egonez gero, denak.
20. Liburu on bat? "Las voces del desierto", Mario Morganena.
21. Filmerik onena/txarrena? Onenetako bat, *Tesis*/Filme komertzial batzuk.
22. Musika talderik onena/txarrena? Kreatibo eta berritzaileak direnak/*Spice Girls*-en estilokoak.
23. Tebistako programarik onena/txarrena? Dokumentalak/Uff...
24. Egin dizuten oparirik politena? Esker oneko irrifarre guztiak.
25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Lagun berriak egin eta dauzkadanak zain-tzen.
26. Oporretarako toki bat? Oporretan, edonon ondo.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Garbi-ketak.
28. Gomendio bat? Bakean dagoena bake-an utzi.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Momentuz, ez.
30. 200 milioi irabaziz gero? Ene, irabazi egin behar lehenengo!

## FAMILI ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTROA 97-98 IKASTAROAK

Kurtsoak hasita badaude ere, ondorengo ikastaro hauetarako matrikula epea oraindik zabalik dago:

**GOIZEZ:**  
9:30etatik aurrera

- Sukaldaritza
- Bainikak
- Saloi dantzak (salsa, merengea...)
- Erlajazio masaia

**ARRATSALDEZ:**  
6:30etatik aurrera

- Sukaldaritza
- Eskulanak (tifany, pinturak, etab.)
- Enmarkazioak
- Enkuadernazioa
- Gitarra
- Oinarrizko ingelesa

INFORMA  
ZAITEZ

✚ kutxa fundazioa  
fundación

f

famili eta gizarte-  
hezkuntzarako zentruak  
centros de formación  
familiar y social

Prezioaz, etab. informatzeko dei egin edo urbildu zaitetz zentrorra. Santa Teresa, 12 Tel.: 79 04 59 ARRASATE



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Erdialdean pisua salgai. Erdi jantzita 90 m<sup>2</sup>. Ganbara eta garajearekin. Tel.: 79 42 13.

• Oñatiko alde zaharrean 3 solairuko etxea salgai. Ortu txiki bat dauka. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera.

• San Andresen etxebizitza salgai. 62 m<sup>2</sup>. Sotoarekin, jantzita eta erreformatua. 10 milioi. Toki onean. Tel.: 79 37 97.

### 3. Errentan emateko

• Erdialdean etxe bat alokatzen da. Jantzita dago. Tel.: 79 08 92.

• Pisua alokatzen da Arrasate pasealekua, 4-4.ean. Tel.: 79 15 37.

### 4. Errentan hartzeko

• Neska bat Arrasaten edo inguruko herrietan pisua alokatzeko gertu. Tel.: 79 89 35. Naiara.

### 5. Etxe konpartituak

• Pisua konpartitzeko 3 edo 4 ikasle behar ditugu Eskola inguruan. Tel.: (94) 447 32 99.

• Bilbon, Santutxu kalean gelak alokatzen dira. Tel.: (94) 433 80 81. Maribel. Gaeuz.

• Bakarrik bizi den emakume batek etxea konpartituko luke San Andres auzoan. Tel.: 79 15 96.

• Arrasaten gela bat alokatzen da. Tel.: 79 98 70. Aste barruan, gaeuz.

• Donostiako alde zaharrean pisua osatzeko neska bat behar dugu. Tel.: 79 00 13. Celina.

• Bilboko La Casilla ondoan pisua osatzeko bi pertsona behar dira. Tel.: 79 19 06 goizez edo (94) 421 00 95 arratsaldeko 6etatik aurrera.

• Donostian etxe konpartitu batean sartuko nintzateke. Tel.: 79 49 30.

• Iruñako neska Arrasaten pisua konpartitzeko gertu. Tel.: (948) 26 93 43.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Erguin kalean garajea prezio onean salgai. Tel.: 79 18 70.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

Arrasate Press • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

najatatzea alokatzen da. Tel.: 71 41 21.

### 9. Errentan emateko

• Garajea alokagai Zarugalden. Tel.: 79 23 06.

### 10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea alokatzen da. Tel.: 79 54 07.

## LOKALAK

### 14. Errentan emateko

• Erdiko kaleko 48 zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Janari denda errentan eman nahi dut. Tel.: 79 92 84.

• Deban taberna bat eskuz aldatzen da. Martxan dago. Bezero onak ditu. Orain dela gutxi berrituta. Tel.: 19 19 54.

• Leintz-Gatzagako erdi erdian taber-

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 42 03. Maite.

• Orduka lan egingo nuke. Tel.: 79 37 68.

• Esperientziadun neska pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 31 44. Gaeuz. Mariam.

• Ilea-paintzaile tituloduna gertu ilea-paindegietan lan egiteko. Tel.: 79 75 55.

• Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak edo gaisoak zaintzeko gertu. Tel.: 79 40 72. Bitori.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 79 49. Juliana.

### 18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Autoa

beharrezkoa da. Tel.: 908 77 53 14 edo 77 01 73.

• Mutila behar da garraiolari laguntzaile bezala lan egiteko. Tel.: 907 70 20 46. Koldo.

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko 40 urte inguruko emakumea behar da. Tel.: 79 12 73. Gaeko 8etatik 10era.

• Multimedia sektoreko elkarteak komertziala behar du. Interesatuek autoa izan beharko dute. Informatika eta multimedien ezagutzak behar dira. Tel.: 71 20 30. eta 929-41 59 43.

• Multimedia sektoreko elkarteak bazkidea behar du. Ezagutza eta esperientzia frogagarriak eskatuko dira. Tel.: 71 20 30. eta 929 41 59 43.

• Neska behar da etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92.

• Bi ume zaintzeko neska bat behar dugu. Tel.: 79 94 51.

Goizetan ume bat zaintzeko esperientziadun emakumea behar dut. Tel.: 79 32 98.

• Zabalkunde handiko kosmetika konpainia batek lana eskaintzen du emakume serioendako. Tel.: 21 19 90

### 19. Denetarik

• Makinaz pasatzen dira lanak, apunteak edo dokumentuak. Tel.: 79 07 64. Fran.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Irakasle tituloduna eskola partikularrek emateko gertu. Tel.: 79 94 04.

• Euskararen 2. urratsa emango dut ordubetatik 3etara. Ordubeteko saioak. Tel.: 77 04 98.

• ESO eta LOGSEko klase partikularrak ematen dira. Esperientziaduna. Talde txikiak. Tel.: 79 56 78.

• Alemanezko eta portugesezko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera.

• DBHko ikasgai eta Logse-n matematika emateko gertu. Talde txikiak. Esperientziaduna. Tel.: 79 08 54

### 21. Eskaerak

• Nire euskara hobetzeko, gaeuz, irakasle partikular baten bila nabil. Astean bi edo hiru ordu. Tel.: 79 34 91. Eguerdietan. Jabi.



**MOTORRA**

**23. Saldu**

- Yamaha FZR 600 salgai. 28.000 km. Oso egoera onean. 400.000 pta. Tel.: 79 65 88. Rober.
- Golf GTI-rako porta eskiak salgai. Kateak oparituko ditut. Tel.: 79 86 33.
- BMW K-100 RS 16 V, ABS motora salgai. Tel.: 79 86 33.
- R-4 salgai. Oso egoera onean eta merkea. Tel.: 79 23 65.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

- Gasoleozko berogailua salgai. Prezioa: 25.000 pta. Egoera ona. 500 litroko depoitua. Tel.: 77 04 61.
- Vitus bizikleta salgai. Tel.: 76 08 21.
- Zero Sette soinu txikia salgai (4 ahots). Berria. 169.000 pta. Tel.: (945) 27 44 26.
- Kaste eski berriak salgai. 1,90 m. Salomon fijasioekin (7 seriekoak) eta eskialtzeko botak (46 eta 37 zenbakikoak) salgai. Tel.:

79 86 33.

- Ordenagailua salgai prezio onean. Tel.: 79 14 71.
- 1. eta 2. batxiler teknologikoko euskarazko liburuak erdi prezioan saltzen dira. Tel.: 79 71 25.
- SuperNintendo salgai. Laujokuditu. Tel.: 79 23 35 edo asteburuetan 13 17 28. Mikel.
- 1,35 zm.ko zubiHogela salgai. Tel.: 79 38 16.
- Sukaldea salgai (amairuak, mahaia, hozkailua, ikuzkailua, laba...) dena egoera onean. 55.000 pta. Tel.: 79 19 36.
- Bulegorako mahai asalgai. 78x158zm. Kolore argikoa. Tel.: 79 08 23. Iñaki.

**27. Erosi**

- Gasoleozko berogailua erosiko nuke. Tel.: 79 37 14. Gaueko Betatik aurrera.

**30. Hartu**

- Aretxabaletako profesionalen erizain laguntzailerako ikasi baduzu eta liburuak soberan badituzu nik gusto-

ra hartuko nituzke. Tel.: 79 68 71.

- Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko gara jasotzen. Tel.: 79 65 31. Maite.
- Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat behar du. Tel.: 79 37 68.

**31. Galdu**

- Akelarre gozotegjaren inguruan estutxa galdu nuen. Saritu egingo da. Tel.: 79 10 40. Sara.
- Liburu bat galdu dut Isabelentzat dedikatua eta lanerako beharrezko dut. Tel.: 79 22 70. Isabel.
- Urriaren 1ean larruzko karteratxo baten giltzak galdu nituen Zarugalde inguruan. Tel.: 79 35 80. Eguerdietan.
- Maritxu gauean Ostarkun norbaitek nire txaketa eraman zuen. Urdina eta botonadura bikoitzarekin. Balio sentimental handia dauka. Sarituko da. Tel.: 79 78 80.
- Maritxu Kajoi gauean Gaztetxe inguruan Konika markako argazki makina galdu nuen. Funda beltz eta gorria dauka. Tel.: (94) 616 65 18.

**32. Aurkitu**

- Peugeot gorri bat Bi matrikuladuna, ostiralean, irailaren 12an, gaueko 10.30ak inguruan lau gazte autopoz ez hartu eta bertan giltzak ahaztu zituzten. Gazteak Elorriarako jaietara zihoazten. Giltzak Udaltzaingoa utzi ditut.
- Ordulari bat aurkitu nuen Munarrek zubian. Pultseraduna da. Tel.: 79 08 04.

**HARREMANAK**

**34. Agurrak**

- Epo. Animo! Bizitza ez da hemen amaitzen, nahiz eta guri hori irudit. Ez ahaztu denboraren poderioz ideiaz aldatu dezakela. Maite zaitut. MML.

**35. Kontaktuak**

- Zumarragara egunero kotxez doan norbaitekin harremanetan jartzea nahi dut. Tel.: 79 98 24. Karios. Eguerditan.
- Astelehenetik ostegunera Leioara joan behar dut autoz. Goizeko 9etarako iristen naiz eta buelta 14.00etan. Bidaia konpartitzea interesatzen bazaizu deitu 79 48 83 edo 79 65 34 telefonora.

**NISSAN**



**Aldibi**

**Aldibi Autoak, S.A**  
Zigorrola, 1  
ARRASATE  
Tel.: 71 20 02  
Faxa: 79 65 65

**Hau da zure jendea, hau da zure etxea.**

**Hemen zure amets guztiak egon daitezke.**



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak, S.L.



Hyundai

Musakola Autoak, S.L.



Chrysler

Co-Car, S.A.



Mazda

Musakola Autoak, S.A



Nissan

Aldibi Autoak, S.A



■ **Horoskopoa**

- **Aries** Solariumeko kolore marroi horrekin ez zaitu inork ezagutzen.
- **Taurus** Ez dituzu stopak ikusten. Erosi beturreko berriak, motel!
- **Gemini** Maritxu Kajoiko ajearekin ezin duzula lanik egin? Ba, formal ibili.
- **Cancer** Ea noiz enteratzen zaren: hippyek Armaniko trajeak jazten dituzte.
- **Leo** Iratzargailua erabiltzeko instrukzioak arretaz irakurri.
- **Virgo** Futbolaren inguruko zure ideiak garatuz gero, cum laude lortuko duzu.
- **Libra** Noizean behin diru poltsa zabal-tzen baduzu, ez zara arruinatuko.
- **Scorpio** Enziklopedia unibertsala irakurtzen asko ikasiko duzu.
- **Sagittarius** Aspertuta zaudela? Ez dut uste ni baino gehiago egongo zaudenik.
- **Capricorn** Ikuzkailuak ez dira beturreko psikodelikoak, buruhaundixoi.
- **Aquarius** Gansterren pelikula batean bizi zarela ematen du.
- **Piscis** Eskerrak ostirala dela, egun bat gehiago eta uffff.....

■ **Gurutzegrama**

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12			13				
14		15			16		
17				18		19	
20							

JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Arrasate Yoga elkarteko lehendakariaren abizena. 9. Mota bereko lau gauzaz osatua. 10. Zerbaiten itxaropena galdu. 11. Alfabetoko hogeigarren letraren izena. 12. Izenordaina, "beste pertsonak eta ni" adierazten duena. 13. Lo egiten. 14. Mediterraneo barneko itsasoa, Grezia eta Turkiaren artean. 16. (Ald.) Kanarietako herri-kanta eta dantza. 17. Joan-dako garai baterako joera duenaz esaten da. 19. Joan aditzaren erroa. 20. Gipuzkoako udalerria.

**Bertikalak** 1. Alai. 2. (Ald.) Negukoa, negurari dagokiona. 3. Jatorriz Euskal Herrikoa den kartajokoa. 4. Beti eguzki aldera begiratzen duen landarea, olioia egiten da bere haziez. 5. Nobelioa. 6. Hartzen diren janari eta edarien kontrola. 7. Lurrzalaren zatirik handiena estaltzen duen ur gazizko masa. 8. Errotari. 15. (Ald.) Lore horiak dituen zuhaixka arantzaduna. 18. (Ald.) Gizonezkoiei edo animalia arrei deitzeko erabiltzen den hitza.

**Horizontalak:** 1. Armendia, 9. Laukoitz, 10. Eisl, 11. Esei, 12. Gu, 13. Lotan, 14. Egeo, 16. (Ald.) Isa, 17. Retro, 19. Oa, 20. Anetia.  
**Bertikalak:** 1. Alegera, 2. (Ald.) Negutar, 3. Mus, 4. Ekllore, 5. No, 6. Dieta, 7. Itasas, 8. Azenia, 15. (Ald.) Oie, 18. (Ald.) To.



**ZUZEN ZUZENEAN  
 FABRIKATIK  
 ZURE ETXERA**



Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide poligonoa • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75



# Zure iritzia ATBn zuzenean

Asteazkenean estreinatuko du Beñardo Kortabariak "Tertulixan"

"Tertulixan" berriro itzuliko da Arrasate Telebistara asteazkenean, oraingoan Beñardo Kortabariaren gidaritzapean. ATBko tertulien aurreko etaparen aldean, bi berezitasun izango ditu aurtengoak: Tertulianoak ez dira beti berdinak izango, aldatuz joango dira, eta edozeinek izango du parte hartu eta iritzia emateko aukera, bai platoan bertan, bai telefonoz. Gaien menuan denetarik egongo da, baldintza bakarra gaurkotatzen izanda. Errepaso modura bideo bat ikusi ahal izango da lehen minutuetan, azken 15 egunetako gertakariak aipagarriak atereaz, tertulioak deek berrikeretan hasteko oinarriren bat izan dezaten. Arrasateko gaiak komentatuko dira, baina baita mundu mailakoak edo Euskal Herrikoak



Haritz Azkarraga

ere, interesa duten neurrian, eta berdin politika, kirola edo beste edozer. Iritzien lapikoa sortzea, hori da kontua.

Ondoko argazkietan, aste honetako tertulioak izango diren laurak atera nahi genituen, baina akats tekniko batek batena ateratzea eragotzi digute: **Tere Egidazuren**. Beste hirurak hemen ondoan dituzue.



Jon Ander Juldain



Andres Gabilondo

## Irratsaio berriak Arrasate Irratian

Gaur ostirala, bi irratsaio berri hasiko dira Arrasate Irratian. Gaueko hamarretan, *Music-Box* musika programa, Pedro Riveiro eta Edu Abasolorekin.

Gaueko hamaiketan, *Drugstore*, makina musika programa, Errukane Apeirribai, Belen Aranbarri eta Elena Zaratek aurkeztuta.

Astelehenean, gaueko bederatzietan, *Jokoz kanpo* kirol saioa hasiko da. Asteburuko kirol kontuen errepaso, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiak egingo dute astelehenero.

Bestalde, gogoratu irratia tailerlean izena emateko aukera beste astebez luza-tu dela.

## ■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 11	ASTELEHENA, 13	ASTEARTEA, 14	ASTEAZKENA, 15	OSTEGUNA, 16	OSTIRALA, 17
Astean zehar eskainitako programa interesgarriena errepikapena	13:30 <b>Astebete</b> (Errepik.)	13:30 <b>Mondrasport</b> (Errepik.)	13:30 <b>Lotsa Barik</b> (Errepik.)	13:30 <b>Tertulixan</b> (Errepik.)	13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> (Errepik.)
13:30 <b>Kukaratxa Motel</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> . <i>Pabxi Montero</i> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	19:15 <b>Kukaratxa Motel</b> . <i>Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin</i> . Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .
14:15 <b>Astebete</b>	21:30 <b>Mondrasport</b> . <i>Itxaro Zubillaga</i> . Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak, ... eta lehiaketa astelehenero.	21:30 <b>Lotsa Barik</b> . <i>Maier Uranga eta Suar Aizpuru</i> . Gaurko gonbidatuak Latzen taldeko hiru kide izango dira.	21:00 <b>Tertulixan</b> . <i>Beñardo Kortabari</i> . Gaurkoan tertulioakideen ahotan, besteak beste, HBren epaiketara, ezkontza, derbia, ELA eta Estatutua, Maritxu Kajoi, Kilometroak, Pako Roblesen askapena, eta abar.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	21:30 <b>Astebete</b> . <i>Pabxi Montero</i> . Astean zehar jasotako berrien laburpena eta gai interesgarrien sakontzea.
14:45 <b>Buru astinduz</b> . <i>Testament</i> eta <i>Napalm Death</i> Jam aretoan. Kontzertuen zatiak eta taldeetako kideekin elkarizketak.				21:30 <b>Kukaratxa Motel</b> .	



**U**dalatx eguna domeka honetan. Jende ugari igoko ditu egun horretan Udalatxeko malda

gogorak, askok egun berezia izateagatik; beste batzuk, berriz, egunero edo asteburo ohitura horixe dutelako. Gaurko bi argazki zaharreko protagonistak horietakoak dira, sarri sarri han goian egoten direnetarikoak. Irudiak, dena den, ez dira Udalatx egunekoak, Urteberri egunekoak baizik.

Goiko argazkian agertzen direnak honako hauek: Ezkerrean txapelarekin, Joxe Markaide, bizkarra emanda Inazio Balzategi, Borladun gorroduna Alberto Balzategi, atzerago dagoen gorroduna Josemari Bergaretxe, ondoan Gerardo Jauregi, aurre-aurrean Peio Arabaolaza, eta eskumaldean erdi-ezkutuan, Mateo Iturbe, Nikolas Agirre eta Jabier Bergaretxe.

Beheko argazkian hauek: Txapelaz bizkarra emanda Alvaro Arregi, atzean zutik Andoni Axpe, jarrita Gerardo Jauregi, gorroaz Alberto Balzategi, makurtuta Iñiarra, kuadroan alkonaraz Juantxo Axpe, betaurrekoduna Jesus Jauregi, eta eskumakoa Juan Jose Azkarraga.



Urtea: 1973-4.

Argazkia: Gerardo Jauregi

Informazioa: Gerardo Jauregi.

**Etxe Aundi**  
Hotela\*\* Jatetxea



Torreauzo, 9 • OÑATI • Tel.: 78 19 56 / 78 32 9

errezeta

**FOIE TERRINA**

**OSAGAIK**

- Ahate gibela 1.200 kgr.
- Gatza
- Piper zuria
- Intxaur muskatua
- Armagnac-a

**PRESTAKETA**

- Gibelari kontu handiz zainak kendu.
- Gatz larriarekin (sal gorda), ondu.
- Hozgailuan izotz kubitoeekin estalita utzi, 4 orduz (odol arrastoak garbitzeko)
- Piper zuria, intxaur muskatua eta armagnac-a gehitu norberaren gustora.
- Ondo estutako ontzi batetan jarri nahasketa dena.
- Labean 175° tan, 3 minutuz, mari bainutan egosi, edo egosteko labean 80° tara 45 minutuz.
- Behin egosita taula txiki eta pisudun zerbaitekin prentsatu.
- Hozten denean atera ontzitik.
- Ogi xigortuarekin zerbitzatu.



# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

**LOGELETAN** espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.  
Batetik, kalitate eta diseinurik  
handieneko logelak, garantia osoarekin.  
Bestetik, logela merkeen artean,  
merkeenak.

**BENETAN  
HARRIGARRIA!**

**LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilloia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 82

# ARKAZUZ

## sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaian  
Betiko muntaiak

**FAGOR** 



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 77 04 55



# Hemen gara!



**HONDA**



**ACCORD**



**CIVIC** 3 ate



**CIVIC** 5 ate



**MITSUBISHI MOTORS**

**MONTERO**



**SPACE WAGON**

**GALANT**



**MITSUBISHI  
MOTORS**

**MENDIOLA**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE  
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 79 20 30  
Mekanika eta Karrozeria: Tel.: 79 75 64



**HONDA**  
AUTOMOBILAK